HIZKUNTZEN ERABILERA ADMINISTRAZIOKO BARNE HARREMANETAN: EREDU KONPARATUAK ETA EUSKARAREN PRAKTIKA

Xabier Iriondo

DOI: https://doi.org/10.47623/ivap-rvap.44.1996.2.12

SUMARIO: I. Sarrera. II. Eredu konparatuak. A. Belgikar kasua. 1. Hizkuntzen erabilera Brusela Hiriburuko Administrazioan. a) Funtzionarien hizkuntza gaitasunari buruzko xedapenak. b) Hiritarrekiko harremanak. d) Barne erabilera. B. Canadiar kasua. 1. Araudi Federala. a) Sarrera Historikoa. b) Hizkuntzen erabilera Administrazioan. 1) Hiritarrekiko harremana eta zerbitzuen prestakuntza. 2) Hizkuntzen erabilera Administrazioaren barne zereginetan. 2. Quebeceko Araudi Probintziala. a) Sarrera historikoa. b) Quebeceko Administrazio elebakarra. D. Catalunyako kasua. 1. Oinarri juridikoak. 2. Hizkuntzen erabilera Generalitatean: 107/87 Dekretua. a) Oinarrizko printzipioak. 3. Hizkuntzen erabilera Catalunyako Administrazio Lokalean: 8/87 Legea. E. Hizkuntzen erabilera irla balearretako administrazioan: 100/ 90 Dekretua. III. Euskararen erabilera Administrazioan: euskara lan hizkuntza bezala. A. Sarrera. B. Administrazio txikien esperientzia: Hiru eredu Administrazio Lokalean. 1. Udal Euskaldunen Mankomunitateko Ekimena. 2. Euskararen Erabilera Normaltzeko Udal Ordenantzak. 3. AEBE Proiektua. 4. Konklusio gisa. D. Administrazio handiak. 1. Administrazio Orokorra. 2. Gipuzkoako Batzar Nagusietako Arau Forala. 3. Donostiako Udal Administrazioan Euskararen Normalkuntza Bideratzeko Proposamena. IV. Konklusioak.

I. Sarrera

Euskararen erabilera, etorkizuneko arazo izatetik, tratatu beharreko gaia izatera pasatu da, normalkuntza prozesuak aurrera egin duen neurrian. Honen adibide izan dira, eta dira, udalerri askotan gai honi buruz emaniko Ordenantzak eta beste zenbait erakundek martxan jarritako erabilerari buruzko proiektuak (Zenbait udalerrietan martxan jarritako proiektu pilotuak (1), Udal patronatuen ekintzak (2) etab.).

(1) Aipagarria da Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiak, HABEk eta HAEEk 1993an Bergaran eta Antzuolan martxan jarritako AEBE (Administrazioan Euskara Bultzatu Erabiliz) proiektuaren lehen urratsa. Plan honen bitartez bultzada berri bat eman nahi zaio euskararen erabilerari, euskara Bergara eta Antzuolako Udaletako ohiko lan eta zerbitzu hizkuntza izan dadin. Ikus honi buruz "Administrazioa Euskaraz" aldizkariaren 9 zenbakia, 1995eko Uztaila, 5. orrialdea.
(2) Bestek beste, aipa dezagun 1995eko Irailean Donostiako Udal Patronatuak onartu berri duen Udala euskalduntzeko plangintza, erabilera programa barne kokatzen delarik.

Hori dela eta, eta azken hamar urteetan eginikoari berea aitortuz, gizartean sumatzen da aurrerapauso baten beharra, ezagutzatik erabilerara pasatzeko beharra. Hau sumaturik, Euskararen erabileraren erregulazioa kurtso honetako gaien artean sartzea erabaki zuten antolatzaileek. Exposaketa honetan egin nahi dena, kudeaketa teknikoaren gaia horretan adituei utzirik, ikuspuntu juridiko batetatik erabileraren erregulazioak planteatzen dituen arazoak eta kontutan eduki beharreko baldintzak mahai gainean jartzea da. Horretarako lan metodo bezala aukeratu dena, eredu konparatuen azterketa azkar bat egitea eta ondoren euskararen erabilera Administrazioan tratatuko luken xedapen batek kontutan eduki beharreko faktoreak eta arazoak aztertzea izan da, martxan jarritako zenbait ekimenen azterketaren bidez.

II. Eredu konparatuak

Eredu konparatuei gainbegirada bat botatzerakoan kontutan hartu behar da eredu horiek eskaintzen diguten informazioaren erabilgarritasuna erlatiboa dela.

Ikusiko ditugun sistema ezberdinak, gune konkretu eta ezberdinetan aplikatzen dira; denetan egoera soziolinguistikoa (gurearekin konparatuz) askoz ere garatuagoa dago, eta hizkuntzaren egoera juridikoa bera ere ez da berdina.

Hizkuntzen politika eta Legedi linguistikoen munduan murgiltzen den pertsona orok lehen ikasten duen arauetariko bat izaten da, hizkuntzen gatazkaren gai honetan soluziobide perfekturik eta extrapolablerik ez dagoela eta gune bakoitzean aplikatzen den arautegi zein hizkuntza politikak gune konkretu horretan dituela bere sustraiak. Arazo desberdinek, soluziobide desberdinak behar dituztela da mezua, arazo bakoitzak egoera soziolinguistiko batean baitu bere erroa.

A. Belgikar kasua

Brusela hiriburuko funtzionariei dagokien eraentza linguistikoaz aritu aurretik, Belgikar Estatuko antolakuntza instituzionalaz bi hitz aipatzea komenigarria iruditu zait, ondoren Bruselako funtzionariak aipatzerakoan zein Administrazioan kokatzen diren jakin dezagun.

Belgikar Estatua, 1993an Konstituzioaren lehenengo artikulua aldatua geroztik, Estatu federala dugu.

Estatu federal honetan, hiru erregio eta lau hizkuntza-komunitate daude Estatu federalarekin batera eskuduntza banaketan.

Erregioak Flandria, Walonia eta Brusela-Hiriburuko erregioak dira eta Hizkuntza-komunitateak Frankofonoa, Germanofonoa, Neerlandofonoa eta komunitate elebiduna.

Hiru botere maila hauen artean ez dago inolako iherarkiarik, bakoitzak bere eskuduntzak eta eskuduntza horiek egikaritzeko erakundeak dituelarik.

Erakunde hauen artean, une honetan gure aztergai izango dena Brusela hiriburuko erregioa da.

Brusela hiriburuko erregioa Brusela hiriburuak edo Brusela metropoliak eta beste 18 udalerriek osaturiko erregioa da. Geografikoki Flandriaren hego aldean kokaturiko gunea da, alegia, muga linguistikotik ipar aldera.

Guztira 950.000 biztanle inguru bizi dira gune honetan eta ikuspuntu linguistiko batetatik ikusirik Brusela hiriburuko erregioa erregio elebiduna da, bertan Frantsesa eta Neerlandera berdintasun maila batetan aurkitzen direlarik.

Brusela hiriburuan, Bruselak Belgikar Estatuko eraikuntza instituzionalean jokatzen duen paper garrantzitsuagatik, hiru Administrazio mota aurki ditzakegu:

— Administrazio zentrala edo federala;
— Brusela hiriburuko Administrazio erregionala;
— Brusela hiriburuko Administrazio lokala.

Guri une honetan aztertzen ari garen gaiagatik interesgarri suertatzen zaiguna Brusela hiriburuko Administrazio lokala da. Brusela hiriburuko Administrazio lokala, 950.000 administratuen zerbitzurako antolaturiko hiri Administrazioa da, administratu horien artean Neerlandofonoak eta Frankofonoak berdintasun mailan aurkitzen direnez, Administrazio elebiduna delarik.

1. Hizkuntzen erabilera Administrazioan

Belgikar Estatuko beste zerbitzu lokaletan, alegia Erregio Frankofono, Neerlandofono edo Germanofonoetan kokatzen diren Administrazio lokaletan, zerbitzuen estatus linguistikoa elebakarra da; zerbitzu orok erregioko hizkuntza erabiliko du soilik bai barne naiz kanpo harremanetan.

Gauzak ordea, oso bestelakoak dira Brusela hiriburuko zerbitzu lokaletan. Hemen, elebitasuna da araua bai barne nahiz kanpo harremanetan.

Administrazioaren eraentza linguistikoa osatzen zuten arau anitzek korpus juridikoa korapilotsua bezain ulergaitza bihurtu zuten (3), urteetan emaniko arau ezberdinen arteko koordinaziorako Lege baten beharra ezin bestekoa zelarik.

Hala, Administrazioan hizkuntzen erabilera arautzen zuten xedapen araugile guziak bateratu zituen errege dekretua onartu zen 1966.ean, xedapen hau izango dugularik oinarri aurrerantzean.

Arau honek Administrazioa, justizia zein hezkuntza arautzen ditu ikuspegi linguistikotik, eta Robert Senell irakasleak zehazki aztertu duenez ez noa orain berriro bere ponentzian esandakoa errepikatzera.

(3) Belgikar Legedi linguistikoa "munduko Legedi linguistikoetan astunena" bezala izan da definitua. Ikus, Baetens Beardsmore 1980,147. orrialdea.

Hizkuntzaren erabilerari dagokion atalean agertzen diren hiru puntu nagusi aztertuko ditut soilik.

a) Funtzionarien hizkuntza gaitasunari buruzko xedapenak

Brusela hiriburuko Administrazio lokalean araua elebitasuna delarik, funtzionari orok ezagutu beharko ditu bi hizkuntzak (4).

Zerbitzu lokalean lan egiteko hautagaiek bere ikasketen arabera Hizkuntza Nagusi bat izango dute, alegia egindako ikasketetan erabilitako hizkuntza izango dute hizkuntza nagusi bezala.

Hizkuntza nagusi horren arabera Administrazioko talde linguistiko batetan edo bestean izango dira kokatuak.

Horretaz gain, nagusitzat ez duten beste hizkuntzaren ezagutza oinarrizkoa egiaztatu beharko dute, ezagutza maila hori bere lanpostuaren araberakoa izango delarik.

Brusela hiriburuko zerbitzu lokalek bi talde linguistikoen artean berdintasunez banatu beharko dituzte eskainitako lanpostuak.

Funtzionari guziak daude talde linguistiko batetan inskribaturik eta talde linguistiko hori sarrera azterketa baten ondorioz dator determinaturik beraien bizitza profesional guzirako (Sarrera azterketarik egin behar ez badute, funtzionariaren ikasketetan erabilitako hizkuntzak determinatuko du hizkuntza nagusia lehen esan dugunez).

b) Hiritarrekiko harremanak (5)

Administratuekiko harremanak zein hizkuntzatan egingo diren zehazteko hiru irizpide erabiltzen dira:

— Orokorrean administratu guziei zuzenduriko Iragarkiak, Komunikazioak eta formularioak elebietan erredaktatuak izango dira;

— Hiritarrekiko harreman partikularretan administratuak erabakiko du zein den erabili nahi duen hizkuntza, hala ere, harremanak erregio elebakarrean egoitza duen entrepresa pribatu batekin egiten badira, erregioko hizkuntza izango da erabilgarri;

— Hiritar konkretuei zuzenduriko ziurtagiri, baimenak eta jakinerazpenak hiritarraren aukerako hizkuntzan egingo dira.

d) Barne erabilera (6)

Barne zereginetan, alegia arazoen tramitazioan eta Administrazioko barne txostenetan, printzipioz erabili beharreko hizkuntza, arazoa kokatua dagoen

(4) "Arrete Royal portant coordination des lois sur lemploi des langues en matiere administrative" (Moniteur Belge 1966.8.2) 21. artikulua.
(5) Ikus Lege berdinean 18, 19 eta 20 artikuluak.
(6) Ikus Lege berdinean 17 artikulua.

guneko hizkuntza da, arazoa edo barne jardunaren edukia kokagarria denean; arazoa kokagarria ez bada, aurkeztu duen hiritarrak aukeratuko du zein den erabili beharreko hizkuntza eta ofiziozko jarduera administratiboetan jarduera hori aurrera eraman behar duen funtzionariaren Hizkuntza Nagusiak markatuko du erabili beharreko hizkuntza, horregatik daude funtzionari guziak Hizkuntza Nagusi baten bitartez determinaturik.

Konklusio gisa esan genezake Administrazioko lan hizkuntza hiritarrek markatzen dutela beraien eskariz eginiko jardueratan eta ofiziozkoetan jarduera egin behar duen funtzionariaren Hizkuntza Nagusiak determinatuko du erabili beharreko hizkuntza.

B. Canadiar kasua

Canadiar araudi linguistikoa aztertzerakoan, kontutan izan behar dugu, Canadan ere bi Administrazio desberdin aurkitzen ditugula (Federala eta Probintziala) eta Administrazio bakoitzak bere araudi linguistikoa duela, printzipio eta eduki desberdinekin.

1867.eko Konstituzioaz geroztik, Canada Estatu federala da, 10 probintziaz eta 2 lurralde federalez osaturikoa. Bertan 25 miloi biztanle bizi dira, hauetariko 16 miloi Anglofonoak direlarik, 6 miloi frankofonoak eta beste 3 miloi Canadako aitzinako biztanle autoktonoak, beraien hizkuntza ama ez delarik ez ingelesa ez frantsesa.

Biztanlego frankofonoa oso kontzentratua aurkitzen dugu Canadan; 5 miloi Quebec-eko probintzian bizi direlarik, beste miloi laurdena Nou Brunswickeko probintzian eta beste miloi erdia Ontarioko probintziaren ekialdean. Geratzen diren 250.000 frankofonoak Canada osoko probintzia eta lurralde federaletan banatuak aurkitzen dira benetako talde frankofonoak sortzen dituztela ezin esan daitekeelarik.

Canadiar federazioak eskuduntza banaketa bat egiten du 1867. urteko British North American Act onartua geroztik. Lege Konstituzionala bezala ezagutua den Arau honek, ez du hizkuntza eskuduntza bakun eta konkretua bezala aurreikusten eta ez dio hizkuntzaren gaineko eskuduntza botere bati edo besteari esleituko. Ondorioz, Gobernu Federalak zein Probintzialak arautu dezake hizkuntzaren gaia, araudi hori bere eskuduntzako gai bati badagokio (7). Honen ondorioz, Probintziek hizkuntza gaiak arautu ditzakete bere Administrazio mailan, hezkuntza mailan, hiritarren hizkuntza eskubide mailan edo probintzia barneko merkataritza mailan. Administrazio federalak, beste alde, hizkuntzen gaineko arauak onartu ditzake, Administrazio

(7) Hizkuntza Eskubideei buruzko eskuduntza "Eskuduntza akzesorioa" bezala ezagutua da, alegia beste eskuduntza garrantzitsuekin intzidentalki zerikusia duen eskuduntza horietariko bat, eskuduntza banaketan eskuduntza nagusiei jarraituko diona. Ikus honi buruz "Droits linguistiques au Canada" Bastarache, Braen i altres. Cowansville, Ed. Yvon Blais, 1985.

federaleko erakunde mailan, probintziarteko merkataritza mailan edo Auzitegi federaletako prozedura mailan.

1. Araudi federala

a) Sarrera Historikoa

1867ko, British North American Act izenez ezaguna den lehen Lege konstituzional honek, hizkuntzari buruzko xedapen bakarra jasotzen zuen, bere 133 (8). artikuluan elebitasun antzeko bat antolatuz Canadako Administrazio federalean, soilik Legeetan, Parlamentu Federaleko eztabaidetan eta Justizian aplikagarria zena.

Hala ere, Canada ez dugu ofizialki Estatu elebidun bat 1867. urtetik, 1969. urterarte itxoin beharko dugu Hizkuntza Ofizialen termino hori agertu arte.

Hizkuntza Ofizialen ideia 1969. urteko Hizkuntza Ofizialei buruzko Legean agertzen da lehen aldiz, Lege honetan hizkuntza frantsesa eta ingelesaren estatutu ofizial eta berdina aitortzen delarik, nahiz ofizialtasun hori Parlamentura, Auzitegi federaletara eta Gobernu federalak eskainitako zenbait zerbitzuetara mugatua egon.

Beranduago, 1982. urtean, eta Gobernu probintzialek Gobernu federalarekin izandako eztabaiden ondorioz, Loi Constitutionelle edo Canada Act delakoa onartu zen, honek hizkuntza eskubide multzo zabalago bat eskaintzen zuelarik.

1982ko Lege honek, hizkuntza bien ofizialtasuna egiaztatu ondoren, elebitasuna zabalduko du Nou Brunswickeko probintziara eta obligazio berriak ezarriko dizkio gobernu federalari zerbitzu publikoen arloan.

Hala ere, eta 1867. urteko Lege konstituzionala onartu zenetik ia 125 urte pasatu zirenean, Canadiar Gobernu federalak hizkuntzekiko zeraman politikak emandako emaitzak eskasak zirela ikusirik, Hizkuntza Ofizialei buruzko Lege berri baten beharra ikusi zen.

Hizkuntza Ofizialei buruzko 1969.eko Legearen akatsak eta hutsuneak betetzeko asmoz, 1988. urtean Hizkuntza Ofizialei buruzko Lege (9) berria onartu zen.

Lege honek bere 2. artikuluan onartzen duen bezala, Frantsesa eta Ingelesaren errespetua eta estatutu zein eskubideen berdintasuna ziurtatzea ditu helburutzat, biak hizkuntza ofizialak izanik eskubide berdinak izan ditzaten erakunde federaletan, Justizia Administrazioan, hiritarrekiko harremanetan eta Administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuen prestakuntzan.

(8) British North American Act, Art.133:" Pertsona orok erabil ditzake Frantsesa nahiz Ingelesa Canadako Parlamentuko eztabaidetan eta Quebeceko Legebiltzarraren eztabaidetan eta bi erakunde hauetako erregistro zein diarioak bi hizkuntzetan izango dira idatziak. Pertsona orok izango du eskubidea Frantsesa edo Ingelesa erabiltzeko Canadako edo Quebeceko auzitegien aurrean daraman prozesu edo alegazioetan".
(9) Loi sur les langues officielles, du 28 juillet 1988 (Queens printer for Canada, Ottawa, 1989).

b) Hizkuntzen erabilera Administrazioan

1988. urteko Hizkuntza Ofizialei buruzko Legeak Administrazioari bete behar linguistikoak ezarri zizkion, elebitasuna ofizialki aitortzeaz gain elebitasun horren ondorio juridikoak gauzatzeko asmoz.

Berdintasun linguistikoa zerbitzu publikoetan eragingarri egiteko asmoz, Lege honek hiritarren zenbait eskubide aitortzen ditu, Administrazioari zenbait derrigortasun ezartzen dizkion bitartean, baina tamalez printzipio horiek, Quebecetik eta beste lurralde frankofonoetatik kanpo, huts bilakatzen dituen ñabardura ugari jasotzen direla esan beharra dago azterketan sartu aurretik.

Azken finean, Canadiar Gobernu federalak arreta handiagoa hartu du Ingelesa Quebecen babesteko, Frantsesa Canadako beste Lurraldeetan babesteko baino, eta hor datza Lege honen gakoa, Frantsesa eta ez Ingelesa dela babestu beharreko hizkuntza ofiziala (10), Lege honek ulertu ez duen oinarrizko printzipioa.

1) Hiritarrekiko harremanak eta zerbitzuen prestakuntza

Hiritarrekiko harremanetan eta zerbitzuen prestakuntzan, bi hizkuntzak izango dira erabilgarri baldin eta zerbitzu emailea elebiduna bezala kontsideratua dagoen.

Zerbitzu elebidun nozio hau Lege honetan agertzen da lehen aldiz eduki eta esanahia konkretu batekin.

Zerbitzu elebidunak zeintzuk diren finkatzeko, administratuen eskaria eta zerbitzua kokatua dagoen gunea hartzen dira kontutan, hala, Conseil du Tresor eta Commision de la fonction publique izeneko erakunde federalek eginiko interpretazioen arabera determinatuko dira zeintzuk diren elebidun deituak izan daitezken zerbitzuak eta administratuen eskubidea zerbitzu horietan bakarrik izango da bermatua.

Beraz, ezin dugu aipatu gabe utzi azken finean Lege honen helburua ez dela hizkuntza bien berdintasuna bermatzea izan, hizkuntza bien ofizialtasunaren ondorio juridiko guziak Administrazio federal osora zabalduz.

Helburua askoz ere mugatuagoa da, azken finean soilik elebidun bezala kontsideraturiko zerbitzuetan eskainiko baitzaie administratuei bere aukerako hizkuntza erabiltzeko eskubidea.

Elebidun zerbitzuak zeintzuk diren zerrendatzeko, Lege honek 1977. urteko 46. Zirkular (11) bati egiten dio erreferentzia, bertan agertzen diren zerbitzu elebidunak Nou Brunswicken eta Quebecen aurkitzen direlarik.

(10) Une honetan ez gara sartuko bertako hizkuntza Amerindioen egoera aztertzera, soilik aipatu Ingelesa eta Frantsesa ez diren hizkuntzen hiztunen kopurua 3. milioitik gorakoa dela, inongo Estatus legalik ez duten bitartean.
(11) Circulaire n.° 1977-46 du Conseil du Tresor et de la Commission de la fonction publique du septembre 1977 intitulee "Las langues officielles dans la fonction publique: Declaration de politiques" (Gazzette du Canada 30 du septembre 1977).

Ez da kasualitatea zerbitzu elebidunak gune hauetan agertzea, azken finean Lege honek Ingeles hiztunen hizkuntza eskubidea defendatu nahi izan du gune frankofonoetan,frantses hiztunena gune anglofonoetan baino.

2) Hizkuntzen erabilera Administrazioaren barne zereginetan

Hizkuntza Ofizialei buruzko Legeak bere 34. artikuluan esplizituki funtzionarien hizkuntza askatasuna aitortzen badu ere (12),askatasun hori gune edo zerbitzu elebidunetara mugatua dago, beraz soilik zerbitzu elebidunetan aurkitzen diren funtzionariak eta "bere lan giroak edo zerbitzu publikoaren exijentziek" baimentzen duten neurrian daukate bere aukerako hizkuntzan lan egiteko eskubidea.

Errepikatu beharrik ez dago Zerbitzu elebidun horiek Nou Brunswicken eta Quebecen aurkitzen direla.

Konklusio gisa esan genezake, Lege honen intentzioa ez dela hizkuntza bien parekotasuna eta berdintasun juridikoa bilatzea izan, oso bestela, Lege honek gune frankofonoetan dauden ingeles hiztunen hizkuntza eskubideak babestu nahi izan ditu. Conseil de la Langue Française delako erakundearen iritzia jasoaz "Lege honek bi hizkuntzekiko agertzen duen simetria maltzurraz gure preokupazioa agertu nahi genuke, Legegileek ahazten baitute Canadako bi hizkuntza ofizialen artean soilik hizkuntza frantsesa dela meatxatua dagoena, eta horren eredu baliagarri izan daiteke Lege honek gutxiengo linguistikoari buruz egiten duen irakurketa, soilik gutxiengo linguistiko bezala ezagutzen baititu gutxiengo probintzialak eta gutxiengo erregionalak, erreferentziako lurraldea inoiz ez delarik Canada osoa (13)."

Canadak gutxiengo linguistiko erregionalak eta probintzialak ezagutu eta babesten ditu baina ez gutxiengo linguistiko Canadiarrak.

2. Quebeceko araudi probintziala

a) Sarrera historikoa

Quebeceko hizkuntz politika aztertzerakoan abiapuntua 1969ko 63. Legean jarriko dugu. Lehen Lege hau hezkuntzari buruzkoa zen eta hiritarrengan uzten zuen irakaskuntza zein hizkuntzatan egin nahi zutenaren aukera.

Lehen Lege linguistikoak elebitasunaren aldekoak izan ziren, ingelesari eskubide zabalak esleituz eta ingelesaren estatusa bultzatuz.

Zenbait adituek uste izan dutenez, lehen garai hauetan Quebectarrek pentsatu izan zuten ingeles hiztunekiko eta ingelesarekiko jarrera on batek bere

(12) Loi sur les langues officielles, art.34: Le français et l´anglais sont les langues de travail des institutions federales. Leurs agents ont done le droit dutiliser lune ou l'autre.
(13) 1988.eko Martxoaren 4an Conseil de la langue françaisek emaniko "Avis a la Ministre responsable de l´aplication de la Charte de la Langue française"tik hartua, 21. orrialdea.

islada izango zuela Canadako beste probintzietako agintarien gain, horrela hauek Frantses hiztunekiko portaera berdina jarraituko zutelarik.

Baina laster konturatu ziren Canadako beste probintzietan Frantses hiztunekiko jarrera ez hobetzeaz gain, Quebecen bertan bere hizkuntza atzera prozesu batean zihoala.

Honetaz arduratu zirenean segituan hasi ziren frantsesaren babeserako neurriak hartzen "Iraultza isila" bezala ezagutua izan den prozesuan.

Quebeceko Frantses hiztunak konturatu ziren gutxiengo frankofonoek beste probintzietan jasotzen zuten tratuaz eta erabaki zuten Canada osoko frantses hiztunen onerako egin zezaketen gauzarik egokiena Quebec indartsu eta frantses bat sortzea zela.

Partie Quebecoise izeneko alderdia gobernura iritsi zenean 1976. urtean, hizkuntza izan zen bere lehentasuneko gaia.

Horrela, urte horretan bertan aurkeztu eta onartuko du Frantsesaren etorkizuna bermatuko duen Legerik garrantzitsuena Charte de la Langue Française edo 101 Legea.

Lege honek ordurarteko elebitasunaren aldeko bidea utziz, elebakartasunaren orientabidea gogor jarraituko du. Gehiengoak argi zeukan elebitasunak ingeles hiztunen elebakartasuna baimendu eta errazteaz gain frantsesaren atzerakada izugarria suposatzen zuela eta ondorioz frantsesaren superbizipenerako bide bakarra aukeratu zuen: Quebec lurralde frantses elebakarra bihurtu.

Lege honen lehen artikulua argia zen: "Frantsesa da Quebeceko hizkuntza ofizial bakarra".

b) Quebeceko Administrazio elebakarra

101 Legea argia da Administrazioari dagokionean "Gobernua, Ministeritzak eta beste erakunde guziak bere frantses izenez izango dira ezagutuak eta testu zein dokumentu guziak frantsesez eginak eta argitaratuak izango dira". Administrazio publikoko lan hizkuntza bakarra frantsesa izanik, frantsesez egingo dira Administrazioko lanak, bai eta administrazioaren barne harremanak. Funtzionari orok bere lanari dagokion ezaguera nahikoa frogatu beharko du.

Lege honek IV atalean Administrazioaren hizkuntzari buruzko araudia dakar, nahiz eta elebakartasuna printzipio bezala hartzen duela ikusirik ez dugun lan hizkuntzari buruzko eredu baliagarriegirik aurkituko.

Kapitulu honen arabera frantsesa da Administrazioko hizkuntza ofizial bakarra eta ondorioz kanpo nahiz barne lanetan frantsesa besterik ez da erabiliko.

Quebec-en, ondorioz, eta hizkuntza bakoitzak bere superbizipenerako eta garapenerako gune propio eta esklusiboa izan behar duenaren teoria jarraituz, elebitasuna printzipio orokor izatetik exzepzio izatera pasatu da,

Gobernu probintzialak bere autonomiaren arabera Quebec elebakarra sortzea erabaki baitzuen, printzipio hori bere azken konklusioetara eramanik.

Salbuespen moduan aipatu beharra dago, Administrazioak ingelesez zuzentzen zaizkion hiritarrei ingelesez erantzuteko "alegina" egingo duela, noski inongo derrigortasunik gabe eta ahal den neurrian ingeles hiztunen kontratazioa bultzatuz. Ildo honetan Quebeceko gobernuak egin dituen esfortzuei buruz Conseil de la Langue Françaisek eginiko txosten baten arabera "Handiak izan dira Gobernuak eginiko lanak Administrazioko testu zein dokumentuak Frantsesa ez diren beste hizkuntzetan argitaratzeko, bai eta osasun zein ziurtasun publikoko gaietan hiritarrak bere hizkuntzan erantzutekoak ere. (...) Bestalde Quebeceko Gobernuak behar diren neurriak hartu ditu funtzio publikoan ingeles hiztunen kontratazioa bultzatzeko" baina Legean nabaria den bezala gobernuaren erabakiaren esku dago neurri hauek bultzatzea, inongo derrigortasunik gabe.

D. Catalunyako kasua

Hasi aurretik adierazi behar da nonbait eredu baliagarririk aurkitzekotan Catalunyan aurkituko dugula, izan ere oinarri juridiko berdinetatik abiaturik egoera soziolinguistikoak desberdintzen bai ditu katalaneraren eta Euskararen auziak.

1. Oinarri juridikoak

Espainiar estatuko konstituzioak bere 3. artikuluaren bitartez gaztelera Estatu osoko hizkuntza ofiziala zela esateaz gain gainontzeko espainiako hizkuntzak ere zegozkien elkarte autonomoetan ofizialak izango zirela aldarrikatu zuenetik, elkarte autonomoek, autonomi estatutuen bitartez, bakoitzak bere hizkuntza propioaren ofizialtasuna ezagutu eta arautzeari ekin zioten.

Konstituzioko disposizio horren ondorioz, Catalunyak bere Autonomi Estatutua onartu zuen (autonomi estatutuak bere 3. artikuluan katalanera Catalunyako hizkuntza berezko edo propioa dela aldarrikatzen duelarik) eta Catalunyako Administrazioan katalaneraren ofizialtasuna egikaritzeko beste zenbait xedapen araugile ere, hauen artean nagusienak hauek direlarik:

• 7/83 legea hizkuntza normalkuntzari buruzkoa.

Lege honek bere lehen artikuluan dionez "Autonomi estatutuko 3. artikulua garatuz esparru guzietan katalaneraren erabilera normaltzea eta katalaneraren zein gazteleraren erabilera normala zein ofiziala bermatzea dira lege honen helburuak."

Hala, eta katalaneraren erabilera ofiziala lege honen helburuetariko bat izanik, legeak bere lehen tituluan erabilera ofiziala arautzeari ekingo dio, 5. artikuluan aitortzen duelarik "katalanera Catalunyako berezko

hizkuntza izanik generalitateko, administrazio lurraldetarreko, administrazio lokaleko eta generalitatearen dependentziakoak diren beste korporazio publikoen hizkuntza berezkoa ere ba dela".

• 107/87 dekretua, Generalitatean hizkuntzen erabilera arautzen duena (ondoren 254/87 dekretuak zenbait prezeptuetan aldatu zuena).

• 8/87 Legea, Llei municipal i de regim local de Catalunya, Catalunyako administrazio lokalari buruzkoa bere 86 eta 110 artikuluetan jasotzen dituen Hizkuntzari buruzko xedapenak direla eta ona ekarri duguna.

2. Hizkuntzen erabilera generalitatean: 107/87 dekretua

Dekretu honek behin betiko eraentzen du hizkuntza ofizialen erabilera generalitateko administrazioan eta horretarako agindu zehatzak zuzentzen dizkie bertako funtzionariei, horrela katalaneraren erabilera normala bermatua gera dadin administrazioan.

a) Oinarrizko printzipioak

Katalanera, Catalunyako berezko hizkuntza izanik, generalitateko berezko hizkuntza ere bada, beraz hiritarrekin harreman idatzia naiz ahozkoa izateko modu normala katalaneraz izango da, nahiz eta funtzionariek ezin izango duten hiritar bat behartu berak aukeratu ez duen hizkuntza bat erabiltzera.

Hau oinarrizko printzipioa izanik bertatik zenbait bete behar ondorioztatzen dira:

1) Lehen ondorioa ezagutza mailakoa da, alegia "Hiritarrekin harremanetan diharduen funtzionari orok bi hizkuntzetako edozein erabiltzeko gaitasuna izan beharko du."

2) Hiritarrekiko harremanei dagokienez, generalitatearen eta hiritarren arteko harremanetan funtzionariek beti katalanera erabiliko dute ahalik eta hiritarrek gazteleraz aritzeko eskakizuna egiten ez duten bitartean.

Jakinerazpen orokorrei dagokienez, "katalanera izango da generalitateak erabiliko duen hizkuntza" soilik, hala eskatu duten hiritarrekiko jakinarazpen pertsonaletan edo ukan behar bereziek justifikatzen dutenean erabiliko direlarik testu elebidunak.

3) Erakundeen arteko harremanetan, "katalanera izango da erabiliko den hizkuntza bakarra Catalunyako eremu lurraldetarrean kokatzen diren administrazio publiko guziekiko harremanetan, bai eta katalanera berezko hizkuntza bezala duten beste administrazioekiko harremanetan" (Valentziako Elkarte Autonomoa, Balearretako Irlak eta Andorrako printzipatua kasuko).

Estatuko administrazio zentralarekiko harremanetan gaztelera erabiliko da eta beste elkarte autonomoekiko harremanetan, hizkuntza berezia duten kasuetan, Elkarte Autonomo horietako hizkuntza berezia erabili daiteke, beti ere administrazio igortzailearen posibilitateen arabera.

Generalitateak Estatu espainoleko edozein administraziok bere hizkuntza propioan igortzen dion dokumentu oro onartuko du, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak egingo dituelarik behar diren itzulpenak.

4) Barne erabilerari dagokionez, administrazioaren barne jarduerak katalaneraz egingo dira , beraz "funtzionariek katalaneraz burutuko dute beraien lana".

Aipatu beharra dago Generalitateko Comissio per a la Normalitzacio Lingüistica delako erakundeak Dekretuaren aginduak argitu nahian emaniko Zirkularra.

Zirkular honek bere ahapaldietariko batean zera dio, "zerbitzu buruen kontrolpean dagoela dokumentu guziak katalaneraz erredaktatzen direnaren erantzukizuna, bai eta zerbitzu horietan idazten diren gutun zein idatzi guziak katalaneraz egiten direnaren erantzukizuna".

Beraz, dekretuak ezartzen duen aginduaren erantzule egiten ditu Administrazioko Sekzio buruak.

3. Hizkuntzen erabilera Catalunyako Administrazio Lokalean: 8/87 Legea

Lege hau izan zen hizkuntza Administrazio Lokalean eraendu zuen lehen Legea.

Lege honen arabera, katalanera Catalunyako Administrazio Lokaleko berezko hizkuntza da.

Honen ondorioz, katalaneraz eginiko administrazio lokaletako egintza administratibo orok baliotasun ofiziala izango du, bai eta katalaneraz eginiko gobernu organoen deialdiak, gai zerrendak, aktak eta bere funtzionamendutik eratorritako dokumentu orok, hauen baliozkotasunak ez duelarik inongo itzulpenik beharko.

Katalaneraz eginiko ekintza hauek duten baliozkotasuna, Udaletako partaideek eginiko ahozko nahiz idatzizko egintza guzietara zabaltzen da.

Guzti honetaz gain, Lege honen arabera Catalunyako Administrazio Lokalean lan egin nahi duen pertsona orok Katalaneraren ezagutza nahikoa frogatu beharko du, berak aurrera eraman beharreko lanarentzat nahikoa izango den hizkuntza gaitasuna.

Lege honek, katalaneraz funtzionatu nahi duen Administrazio Lokal orori Katalaneraz funtzionatu dezan ateak zabaltzen dizkio, beti ere muga hiritarren hizkuntz eskubideetan dagoelarik eta hiritarren esku uzten duelarik Administrazio Lokalarekin harremanak izateko erabili nahi duen hizkuntzaren aukera.

Lege honek, hiritarren hizkuntz eskubideen errespetu osoz Catalunyako Udal Administrazioen funtzionamendua katalaneraz izan dadin baimentzen du, Euskal Autonomi Elkartean Normalkuntza Legeko 8.3 (14) Artikuluak

(14) ENL, 8.3 Art. "Gorago agindutakoa hala dela ere, Udalaren gizarte-hizkuntza egoera dela eta, herritarren eskubideak kaltetzen ez direnean, herri agintariek, Administrazio lokalaren alorrean, euskara bakarrik erabili ahal izango dute".

egiten zuen moduan, baina orain artikulu horren inguruko eztabaidan gehiegi sartu gabe, soilik atentzioa deitu nahiko genuke gaur egun indarrean dagoen eta 8.3 konstituzioz kontrako artikuluaren eduki berdina jasotzen duen Catalunyako legeari buruz.

Catalunyako kasuan katalanera hutsezko jarduera administratiboak zilegiak badira, logikoa litzateke pentsatzea euskara hutsezko jarduerak ere, diskriminazio ezaren mugarekin, baliozkoak direla.

Aurrerago honetan sartzeko aukera izango badugu ere, apuntatu nahi nuke etorkizunean Euskal Autonomi Elkarteko Udalen erregimena eraenduko duen lege batek horrelako xedapenak jaso ditzakeela, horrela 8.3 legeak utziriko hutsunea betez.

E. Hizkuntzen erabilera Irla Balearretako Administrazioan: 100/90 Dekretua

Dekretu honek Catalunyakoarekiko agertzen dituen berdintasunak direla eta, soilik kanpo erabileran aurkitu dugun berezitasun bateri eta barne erabileraren eraentza sisteman atxikituko gatzaizkio.

Dekretu honek Balearretako Administrazio Autonomikoko eta bere dependentziakoak diren erakundeetako hizkuntza erabilera arautzen ditu.

Printzipio orokor bezala Balearretako Administrazio autonomikoa katalaneraz arituko da, idatziz zein ahoz, administratuekin hauek kontrakorik esaten ez duten bitartean.

Jakinerazpen zein publizitate testuetan, orokorrean hiritar guzien jakinerako direnetan, katalana erabiliko da, zenbait kasutan gaztelera ere erabil daitekeelarik (nahiz kasu horiek zeintzuk diren eta nola justifikatzen diren ez den esaten, determinatu gabeko kontzeptu baten aurrean aurkitzen garelarik).

Aipagarria iruditu zaigu Administrazioko karguekiko eta Administrazioko letratuekiko Dekretu honek jasotzen duena; hala, 4. artikuluan dionez, "Administrazioko karguek beti katalanera erabiliko dute bere karguen izenean egiten dituzten agerraldi publiko guzietan" eta letratuei dagokienez " organo jurisdikzionalen aurrean egiten dituzten ekintza guzietan katalanera erabili beharko dute".

Oso xedapen interesgarriak iruditu zaizkigu azken bi hauek, izan ere Administrazioa bera hizkuntzaren normalkuntza lanetan eredu bilakatzen baita bere lanak katalaneraz burutuz.

Bestalde, eta barne erabilerari dagokionez, Balearretako Dekretu honek Catalunyako eredua jarraitzen du eta Administrazioko barne jardun guziak katalaneraz egingo direla esaten du bere 5. artikuluan.

Horretaz gain, eta Administrazioak hirugarren bati eskatzen dizkion ikerketa, proiektu eta beste lanak ere Katalaneraz eginak beharko dute izan, ahalik eta lanaren helburuak beste hizkuntza baten erabilera eskatzen ez badu.

Ikus dezakegun moduan, Irla Balearretako Dekretuak Catalunyakoarekin parekotasun handia agertzen du, beti berezko edo propioa den hizkuntzari lehentasuna emanaz baina erdaldunen hizkuntza eskubideak errespetatuz.

III. Euskararen erabilera Administrazioan: euskara lan hizkuntza bezala

Eredu konparatuei gain begirada bat eman ondoren bada garaia geurera itzuli eta Euskararen erabilerari arreta pixka bat eskaintzeko.

Azpimarratu behar da eredu konparatuetatik lor dezakegun informazioak erakusten digula egoera desberdinetan soluziobide ezberdinak direla aplikagarri eta administrazio bakoitzak kokatua dagoen gunea eta gune horretako egoera soziolinguistiko zein marko juridikoa dituela faktore garrantzitsu bezala, beraz guri orain dagokigun kasuan ere ez da ezberdina izango.

Gai hau aztertzerakoan zenbait atal interesgarri datozkigu burura, bakoitza ikerketa lan baten edukia izan zitekeelarik, hala funtzionarien hizkuntza eskubideak, Administrazioaren eskuduntza lan hizkuntza erabakitzeko etab...

Gai hauek aztertzeko egokia iruditu zaigu Euskal Herriko Autonomi Elkartean orain arte erabilera gai honetan eginikoa aztertzea, azterketa hau eginez ondorioztatu baitaitezke erabilerak gaur egun planteatzen dituen zailtasunak eta karentziak.

A. Sarrera

1986ko azaroaren 25ean 250/86 Dekretuak, Euskal Autonomi Elkarteko Herri Administrazioetan Euskararen erabilera eta normalizazioa arautu zituenetik, Euskara herritarren zerbitzu hizkuntza izateaz gain Herri Administrazioan bertako lan hizkuntza izateko bidea ireki zen.

Administrazioa euskalduntzea ez zela soilik euskara gaitasuna lortzera mugatzen, erabilerara ere zabaltzen zela ulertu zen, azken finean gaitasunean jarritako esfortzu horiek zerbaitetarako eginak ziren, ez ziren ezagutza soilean gelditzeko asmoz eginak.

Joan den uztailaren 31.ean amaitu zelarik Euskal Autonomi Elkarteko funtzionarien euskalduntzeko lehen plangintza eta datorren plangintzaldiaren zutabeetariko bat erabilera sustatu eta indartzearena izango delarik, une egokia iruditu zaigu orain artean erabilera sustatzeko egin diren ahaleginen azterketa bat egiteko eta etorkizunean erabileraren gaiak zein ildotik joan beharko lukeenari buruzko gogoeta bat egiteko.

Egindakoari buruzko azterketa bat egiteko bi atal nagusitan zatitu dugu azalpena, batetik administrazio txiki bezala hartuko ditugun Udaletako ekimenak azalduz eta bestetik administrazio handiak eginikoa aztertuz.

Hasi baino lehen, eta sarrera gisa, zenbait ideia garrantzitsu aztertu nahiko genituzke, eskuartean dugun gaiaren inguruan sortuak eta zenbaitetan eztabaida gai izan direnak.

Batetik, eta euskararen normalkuntzari buruzko legearen 8.3 artikulua konstituzioz kontrakotzat deklaratua izan zenetik, bazirudien euskararen erabilera ia-esklusiboaren aldeko erabakia hartzeko prest zeuden Udalak sostengu juridikorik gabe geratu zirela.

8.3 artikulu honen konstituzionaltasunaz argudio nahiko eman dira azken urte hauetan (15), eta ez da hau errepikatzeko unea, baina zutabe juridiko hori erabilgaitz geratzeak ez du gaitzetsi zenbait Udalek gazteleraren erabilera ia-exklusiboa, euskararen erabilera ia-exklusiboan bihurtu dezaten administrazioko barne harremanetan.

Udal hauen oinarri juridikoa, 8.3 artikulua ordenamendu juridikotik at geratua geroztik, Estatuko Reglamento de Organizacion y Funcionamiento (16) delakoan datza zeinak hizkuntza baten erabilera bere efektu juridiko guziekin baimentzen duen "Udalak onarturiko akordioen arabera" (R.O.F. 86.1 Art), noski euskaraz funtzionatzeko erabaki honek gaztelera hiztunen eskubide guztiz zilegien errespetuan duelarik bere muga.

Bestalde, administrazio batek bere barne funtzionamenduan erabiliko duen hizkuntza aukeratzeko duen eskuduntzaren inguruan sorturiko gora beherei buruz zera esan genezake, arestian aipaturiko R.O.F. berak ere, barne funtzionamendua arautzeko eskuduntza esleitzen diela Udalei (lan hizkuntza barne) horretaz gain Administrazio bakoitzari dagokiolarik, Normalkuntza Legeak eta bere garapeneko Dekretuek diotenaren arabera, bere baitan ofizialtasunak sortzen dituen ondorioak eta normalkuntzarako neurriak arautzea.

Gai garrantzitsu hauek ukitu ondoren, Administrazio desberdinetan erabileran buruz eginikoa aztertu dezagun.

B. Administrazio txikien esperientzia: Hiru eredu administrazio lokalean

1. Udal Euskaldunen Mankomunitateko ekimena: UEMAko Estatutuen onarpena (17)

Udalerri euskaldunek osatzen duten mankomunitate honek urte asko daramazki euskararen erabilera sustatzeko eta bermatzeko erabakiak hartzen.

(15) Ikus I. Agirreazkuenagaren "Administracion local y lengua: Referencia especial al caso vasco", Revista de Estudios de la Administracion Local y Autonomica, 263, 1994ko Uztaila-Iraila, 417-422 orrialdeetan.
(16) Errege Dekretu 2568/1986, azaroaren 28koa, Entitate Lokalen organizazio, funtzionamendu eta erregimen juridikoa onartzen duena, 86 eta 110 artlkuluetan.
(17) Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen Estatutoak bere 1. Artikuluan dionaren arabera: "Aizarnazabal, Altzo, Aulesti, Baliarrain, Bermeo, Dima, Errezil, Etxebarri, Gaintza, Gatika, Gaztelu, Gizaburuaga, Goizueta, Leaburu-Txarama, Leitza, Lizartza, Munitibar-Arbatzategi- Gerrikaitz, Orendain, Orexa, Urdiain, Zeanuri eta Zubietako Udalek, berezko hizkuntza euskara dutela kontutan izanik eta Udalaren barne jarduera zein erabileran normalkuntza prozesuak eskatzen duen ahalegin bereziaz oharturik, Udal Euskaldunen Mankomunitatea sortzeko erabakia hartu dute?".

Hiru izan dira UEMAko udalek beraien lan honetan harturiko erabaki motak:

1. Euskaraz bizi eta Funtzionatzeko Mozioen onarpena, EHEk aurkeztua.
2. Udalerri guztiz euskaldunen tipologiarako arauak, Udalek ordenantza bidez onartuan.
3. Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen Estatutuak, Udal bakoitzak onartuta.

Hasieran eramaniko politikek Eusko Autonomi Elkarteko Auzitegi Nagusiarekin edukitako esperientziaren ondorioz, UEMAk bide berri bat jorratzeari ekin zion, alegia, UEMAko partaide ziren Udalerrietako ordezkariei UEMAko Estatutuak proposatu eta hauen onespenaren ondoren UEMAko partaide bihurtzen ziren Udalei Urtez urteko plangintzak proposatzea (18).

UEMA, Udalerri desberdinen batasunaz sorturiko eta izaera juridikoa duen Entitate Lokala da, eta Entitate Lokal bezala, bere autonomia dauka zenbait eginkizunen gestiorako.

Itxura juridiko honetan babesturik, eta Mankomunitateek Udal partaideen zenbait gai gestionatzeko duten eskuduntzaren bitartez, UEMAk Udalen hizkuntz politika hartzen du bere esku (horrela Udaletako Hizkuntza Politikarako Euskara Aholku Batzordeak 1991ko Maiatzean emaniko aholkua jasoz) eta mankomunitate bezala ,bere partaideen parte hartze eta onespenarekin UEMAk hizkuntza-normalkuntzarako zereginak betetzen ditu.

UEMAk aurrera daraman sistemaren arabera, Udal batek UEMAn sartzea erabakitzen duenean Euskaraz bizitzeko intentzioa adierazten du eta ondorioz hori lortzeko plangintzak eta erabaki adostuak hartzen dira mankomunitate honetan.

UEMAk eskaintzen digu Udal hizkuntz politika bateratuaren adibide bakarra, eta Udalek bere kasa erabileraren zama eraman ez dezaten bide egokia.

Kontutan hartu behar da UEMAn barne aurkitzen diren Udalerri gehientsuenak (Bermio eta Leitzaz aparte) 2-3 funtzionariko Udalak dituztela eta beraz bere mailako plangintza eta erabakiak onartzen dituztela.

(18) UEMAko Estatutuek bere 4. Artikuluan diotenaren arabera:
1) UEMAren helburu orokorra, bertako partaide diren Udal Administrazioen barne jarduera zein Udalerrietako gizarte bizitzaren esparru guztietan euskararen erabilera ahalbideratzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko zerbitzuak eskaintzea da.
2) UEMAko partaide diren Udalerrietako berezko hizkuntza euskara izanik, Udal hauen helburu zehatza, Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera bermatzea da, euskara Administrazioko eta Gizarte harremanetarako hizkuntza bihurtuz. Beti ere, euskara ezagutzen ez duten herritarren eskubideak errespetatuko dira.
3) UEMAko Udale, ikastetxe publikoetako ordezkaritza organoetan parte hartuz, ikastetxean euskararen erabileraren normalizazioa bultzatuko dute, et Udalerrian egin daitezken ikasketa guztiak euskaraz egin ahal izan daitezen bere esku dauden neurriak hartuko dituzte.
4) Bertako partaide diren Udalen ahaleginek emaitza maila goren izan dezaten, UEMA-k hauen ekintzak koordinatu eta beharrezko den laguntza teknikoa eskainiko die.

2. Euskararen Erabilera Normaltzeko Udal Ordenantzak:

Euskararen erabilera arautu duten Udal Ordenantzak asko izan dira eta mota ezberdinetakoak, gure herrien aniztasun eta dibertsitate soziolinguistikoari dagokion bezala (19).

Une honetan Ordenantza hauen gainbegirada bat eginez ondorioztatu daitezken zenbait datu dakarzkigu hona, Udaleko funtzionamenduaren zuzenbide iturri diren Udal xedapen orokor hauei buruzko azterketa xehekatua honi buruzko ikerketa sakonetan aurki daitekeelarik (20).

Euskararen Erabilera Normaltzeko Udal Ordenantzak, Udalek bere eskuduntzen barne eta eraginkortasun osoz onarturiko euskararen erabilera normaltzeko xedapenak dira.

Azken 8 urteetan Udal askok onartu ditu modu honetako xedapenak, bai eta arazo asko sortu ere Estatutu Abokatuek helegite kontentzioso-administratiboak tarteratu dituenean. Baina helegite hauei buruzko analisia I.Agirreazkuenaga Irakasleak bere ponentzian egin duenez, ez noa berriro horretan sartzera, Udal Ordenantzei buruzko komentario orokor bat egitera baizik.

Udal Ordenantza gehienak Administrazio txikietan onartu dira eta Udal txiki horietako euskaldunen kopuru altua oso kontutan hartuz.

Funtsean Ordenantza hauen helburua, herriko eta Udal Administrazioko baldintzak eta bitartekoak egokiak direla kontutan hartuz, euskara hizkuntza normalena eta erabiliena izan dadin lortzea izan da, euskarari nola edo hala eusteaz gain, euskararen erabilpena sustatuz eta horrela Udala bera euskararen erabileraren eredu bilakatuz, horrek herritarrengan islada ere izango duelakotan.

Ordenantzak desberdinak badira ere, egoera soziolinguistikoak eta Udala osatzen duten funtzionarien gaitasunak desberdinak diren bezala, funtsean Udalaren hizkuntz normalizaziorako arau-markoa definitu eta mugatzen dute, gaitasunaren bidetik eginikoa finkatu eta garatzeko asmoz.

Ordenantza hauetan euskaraz funtzionatzea planteatzen da helburu bezala, langileei euskara erabili dezaten eskatuz bere barne jardunetan.

Horrela, eta euskararen ezagutza altua izanik eta Ordenantzak ezartzen duen arau-markoa argia izanik, erabilerarako esparrua erabat legitimaturik agertzen da.

Hau horrela izanik, non aurki daitezke bada arazoak?

---

(19) Euskal Herriko Administrazio Lokalaren aniztasunaren eta desberdintasunaren eredu dira 1986ko Padroian agertzen diren datuak. Datu hauen arabera 20.000 biztanle baina gehiagoko 18 Udalerri daude, 5.000 eta 20.000 biztanle bitarteko 47 eta 5.000 biztanle baina gutxiagoko 171. Horretaz gain, Udalerri hauetako euskaldun kopurua %100 etik %20era bitartean egokitzen da, adibide gisa esan daitekeelarik %80tik gorako euskaldunen kopurua duten 68 Udalerri ditugula eta %20tik beherako 57 Udalerri.

(20) Ikus honi buruz I.Agirreazkuenagaren "Administracion Local y Lengua:Referencia especial al caso vasco". Revista de Estudios de la Administracion Local y Autonomica, 263,1994eko Uztaila-Irailakoan, 433-440 horrialdeetan.

Gure ustetan klabeak hauek lirateke:

Ordenantzek suposatzen duten gazteleraren erabilpen normalarekiko haustura traumatikoa izan ez dadin, euskararen sarrerak helburu finkoei eutsiz epeka eta mailakatua izan behar du, errazenetik zailenera pasatuz, orokorrenetik espezialduenera, eta bide horretan langileei zerbitzu eta laguntza guziak eskainiz (lexikoak, hiztegiak, terminologia ulergarria, imprimakien ereduak..) bapateko aldaketa sortzeko bertuterik ez bai du Ordenantzak.

Honekin loturik, Ordenantzak soilik ez du egoera aldatzeko indarrik, eta Udalaren ekimena Ordenantza baten onarpen hutsean geratuz gero, soilik hala nahi duten Udalek aldatuko dute beraien barne funtzionamenduko hizkuntza, eta ain justuki Udal horiek ez zuten Ordenantzaren beharrik.

Ordenantzak sostengu juridiko bat ematen du eta intentzioen adierazpen bat suposatzen du, baina ez dezagun ahaztu Ordenantzen aurretik ere, 250/86 Dekretuak ere betebehar batzuk ezartzen zituela eta hori ez dela nahikoa izan.

Beraz, Ordenantzaren kunplimendurako beharrezkoa den jarraipen eta kontrol sistema bat moldatu beharko litzateke, xedapen orokor horrek jasotzen duena paper hutsean gera ez dadin.

3. AEBE proiektua: Bergara eta Antzuolako proiektu pilotuak

Hizkuntz Politikarako Sailordetzak, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, inplikaturiko bi Udaletako ordezkariekin batera elkar lanean diseinaturiko plana dugu orain aztergai.

Plangintza hau martxan jarri zenean eginiko ikerketek zera adierazi zuten, zenbait Administraziotan euskararen erabilera sustatzeko proiektuak martxan jartzeko gune egokiak zeudela baina hala ere erabilera alorrean eginikoa kaxkarra zela.

Arazoa lana erdaraz egitetik euskaraz egitera pasatzea zen eta horretarako laneko aukera ona zegoela ikusirik, proposamen batzuk diseinatu zituzten AEBE planetaz arduratzen zirenak.

Bergara zein Antzuolako datu soziolinguistikoak egokiak zirela ikusirik (21) plangintzako arduradunek lan metodologia aurkeztu zuten.

Metodologia honetan hiru atal nagusi bereizten dira:

1. Programa martxan jartzeko adostasuna eta bideragarritasuna.
2. Proiektuaren diseinua eta proposamena.
3. Proiektuaren onarpena eta martxan jartzea.

(21) AEBE planetaz arduratzen diren HPSko langileen arabera Antzuolako Udal Administrazioan 11 langile daude, denak Euskara dutelarik Hizkuntza ama bezala, 8k Hizkuntz Eskakizuna dute eta egiaztatu dute eta 3 Hizkuntz Eskakizunetik salbuetsiak daude baina euskaraz dakite.
Bergaran, 110 langile daude, 24 dira euskara ezer ez dakitenak eta Euskalduntze plangintzari dagokionez %90ean bete da.

Une honetan planaren diseinua onartzen ari dira ondoren Udaletako osoko bilkuran aurkeztu eta onartuko dutelarik martxan jar dadin.

Planak, hitz gutxitan esanik zera suposatzen du; batetik Udalaren benetako hizkuntza egoerari buruzko informazioa jasotzea, horretarako Udalaren egitura, funtzionamendua eta egoerari buruzko datuak jasoz eta langileen banakako inkestak eginez.

Datu bilketa honek Hizkuntza gaitasunei, euskararekiko jarrerei eta aurrera eraman beharreko lanei buruzko informazio zehatza lortzea suposatzen du, horrela plangintza egoki eta partikularizatua diseinatu daitekeelarik.

Plangintza honek zera suposatuko luke, langile guzien egoerari buruzko informazioa izanik (gaitasuna, aurrera eraman beharreko lana, lan hori euskaraz egiteko zailtasuna eta langileen motibazioa) langileen prestakuntza nahikoa eta motibazioa lortzea.

Langile bakoitzak bere lanarekin bat datorren prestakuntza bermatuz eta bere beharrei aurre eginez pixkanaka helburu zehatz eta pertsonalizatuak lortzen joatea.

Atentzioa deitzen du, kasu honetan plangintzak aurre hartzen diola osoko bilkuraren onarpenari. Aurrerago esaten genuen moduan,Osoko bilkurak onarturiko erabakiak ez du berez euskara lan hizkuntza bihurtzeko bertuterik eta beraz, AEBE proiektuak planteatzen du osoko bilkurak inongo erabakirik hartu aurretik inplikatu guzien adostasuna lortzea.

Kasu honetan plangintza osoa inplikatuen adostasunaren baldintzapean dago eta adostasun hori lortzeko motibazioa eta lankidetza behar beharrezkoak dira.

Aipatu nahiko genuke, bi proiektu hauek gune ezin hobeagotan jarri direla martxan, gaitasunak eta borondateak suposatzen dituen oztopoak gainditurik dauden guneetan alegia.

Horretaz gain, gazteleratik euskararako salto hori emateko ahaleginak handiak izan dira AEBE plana martxan jarri aurretik, beraz, AEBE plan honek euskara ohizko hizkuntza bihurtzeko bidean osotasuna eta zehaztasuna eskaintzen dizkie bi Udal hauei.

Azaldutako egoera hau ikusirik, euskara lan hizkuntza izatera pasatzeko saioak oztoporik izango ez duenaren usteak, uste huts bilakatzen direla esan beharra dago, izan ere gune egoki hauetan ere trabak aurkitzen baitira.

Batetik, hizkuntz Eskakizunen eta lanean jartzeko beharrezko gaitasunaren arteko desoreka dago, gaitasun maila bat egiaztatzea eta lanean jartzearen arteko aldea adieraziz.

Honek prestakuntza ikastaro berezien antolakuntza eskatu du behar jakinei aurre egiteko.

Bestetik, beharrezko diren baliabide materialen falta ere nabaritzen da, euskarazko espediente bateratu eta normalizatuak izateaz gain ulergarriak izango direnen falta, hizkuntza zuzena eta ulerterraza erabiliz.

Arazo materialez gain, Hizkuntz Eskakizunetaz salbuetsiak dauden funtzionarien arazoa ere bertan dago, euskaraz lan egiteari ekiteko zama modu boluntarioan gaineratzen ez duten funtzionarien kasua alegia.

Langile hauek motibazio jarrera berezi baten sujetu izan behar dute, beraien inplikazioa lortzeko asmoz eginiko lan giroko trebakuntza eta prestakuntza bereziak martxan jarriz horrela plangintzaren funtzionamenduaren erantzukizuna barneratu dezaten eta Ordenamendu juridikoak baimentzen duen langile ezgaituen lekualdaketa bezalako neurriak azken ratioko neurri bezala utziz.

Beti ere adostasunaren bidetik abiatzeak fruitu hobeagoak ekartzen ditu, desadostasuna eta inposaketa ez direlarik bidelagun egokiak erabileraren bidean.

4. Konklusio gisa

Udalek aurrera eramaniko ekimenen azterketa hau amaitzeko, praxiak erakutsi dizkigun arazoak bideratzeko zenbait ideia komentatzea gelditzen zaigu.

Konkretuenetik orokorrenera joanaz, aipatu dezagun Udal txikietako funtzionariengan erabilerak suposatzen duen zama arintzeko, lehen aipaturiko baliabide materialak eskaintzeaz gain (hemen ere inprimaki zein espedienteen euskaratze lana funtzionari bakoitzari dagokion lana izatetik HAEEk modu bateratu eta egokiago batetan egin dezaken lana izatera pasatzea komenigarria litzateke) ezagupenetik erabilerarako zubia errazten duen trebakuntza programak martxan jartzea egokia litzateke.

Bestalde, erabilera gaitasunaren gain erroturiko aurrerapausoa denez, gaitasunean datza erabileraren gakoak eta hori aurreikusiz euskalduntze plangintzak onartzerakoan kontutan izan beharko lukete arduradunek Hizkuntz Eskakizunak benetako adostasuna izan behar duela bete beharreko lanarekin, Hizkuntz Eskakizuna egiaztatua duten langileek bere lana euskaraz egiteko gai izan beharko dutelarik.

Honek suposatzen du Hizkuntz Eskakizunek erabilera izan behar dutela benetan kontutan eta horrek gaitasun altuak eskatzen ditu.

Hala ere, zenbait Udaletan aurrera eramaniko praktikak adierazten duen moduan, euskararen erabilera Administrazioan mugitzen hasteko ezin gelditu gaitezke beso gurutzaturik ezagutza maila ideala noiz etorriko den zain; praktikak erakutsi digu euskara erabiltzen hasteak beldurra superatzen, konfidantza hartzen eta daukaten gaitasun maila areagotzen laguntzen duela eta gaitasun idealaren zain egon gabe, gaitasun minimo batzuekin hasi daitekeela lanean. Gaitasuna lortzen dihoazen neurrian lan giro eta zer egin euskaldunetan murgiltzen diren gentzionariek, euskalduntzeko egin duten esfortzuaren utilitatea, mozten dute eta kargidantza hartzeaz gain, ezagutzen helburu bezala ikusteari uzten diote erabiliaren parte sentitzen direlarik.

Azkenik, eta Udalerrietan eginikoa boluntarioki egina dela ikusirik, eta Udal bakoitzak ahal izan duen moduan, inongo bateratasunik gabe (UEMAko Udalerriez salbu), Udalentzako politika bateratu bat aurrera eramatearen beharra ikusten dugu, politika bateratu horren bitartez aholkularitza, baliabide materialak eta beraien Ordenantza zein plangintzen sostengu juridikoa eskainiko litzaiekeelarik Udalei.

Horrelako neurri baten bidean eredugarri iruditzen zaigu, lehen pauso moduan eta erabilerari buruzko neurri espezifiko batzuez aparte, Catalunyako 8/1987 legea, Llei municipal i de regim local de Catalunya izenekoa, zeinak katalanera administrazio lokaleko berezko hizkuntza bezala deklaratuz, Administrazio Lokaleko jardueren hizkuntza normaltzat deklaratzen duen.

Uste dugu Udalei, Normalkuntzaren legeko 8.3 artikuluak utziriko hutsunea betetzeko, sostengu juridiko ziurra emango lieken Euskal Administrazio Lokalaren Lege batek mesede handia egingo liokeela erabileraren gai honi.

Horrelako Lege batek hizkuntzari buruzko xedapen minimo batzuk jaso ditzake Udal guztietan aplikagarriak, eginikoari sostengua emateaz gain, ezer egin ez den Udaletan aplikagarria izango litzatekeena.

D. Administrazio handiak

1. Administrazio orokorra

Administrazio orokorrari dagokion atalean, aipatu beharra dago kanpora begira edo "ad extra" harremanetan eginiko esfortzuak bere fruituak eman baditu ere—nahiz kasu batzuetan legez xedaturiko helburu minimoak bete ez diren— barne harremanetan gauza oso bestelakoa dela.

1986ko 250/86 Dekretuak, bere laugarren atalburuko hirugarren sailean zera xedatzen zuen "Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Administrazio orokorrak 12.1, 12.2,12.3 eta 12.4 ataletan adierazitako helburuak bete beharko ditu".

Honen arabera, Gizarte izaerako eta izaera Orokorreko zerbitzu eta Administrazio-atalak osorik elebietan lanean jarriko dira. Horretarako, eta hartu beharreko beste hainbat neurriren artean, langileak bere lana euskaraz ere bete ahal izateko gaituko dira.

Dekretu honen arabera, Administrazio Orokorrak eta Donostiako Udalak bete behar berdinak zituzten, gero ikusiko dugunez batak eta besteak eginikoa oso desberdina delarik.

Administrazio orokorrak erabilera gaiari dagokionez eginikoa ezer gutxi dela eta, horren kausa posibleak aztertzea dagokigu une honetan.

Batetik, Hizkuntza Eskakizunen berme eza aipatu behar da oinarrizko kausa bezala, funtsean horrek baldintzatzen baitu erabilera mailan ezer egitea.

Baina bestetik, aipatu behar da administrazio orokorrak bere tamainagatik planteatzen duen arazo berezia, nahiz eta tamainaren desabantaila erlatiboa den.

Administrazio orokorrak Euskalduntze Plangintzan erabilera kontutan edukiz gainditu dezake bere tamainak suposatzen duen zama, gakoa izango litzateke Hizkuntz Eskakizuna zein langileri jarri behar zaion.

Administrazio orokorra, administrazioko atal guzietan aplikagarri den plangintza bat egiteko euskalduntze maila altu bat itxoiten egon beharrean, administrazioa handi hori administrazio txiki eta ugari balira bezala pentsatzen jar daiteke, pixkanaka euskaldundutako funtzionariekin sareak osatuz eta sare hauetan euskararen erabilera sartuz.

Hizkuntz Eskakizunen bermea datu garrantzitsu bat bada ere, Hizkuntz Eskakizuna duten langileekin lan-kateak sor daitezke, gune egokiak sortuz joan, horrela lan-kate horietan erabilera mikroplanak garatzen joateko.

Ondoren aztertuko dugun Donostiako Udal Administrazioan gertatzen den moduan.

Administrazio osoan aplikagarri ez den erabilera plan bat, Administrazioko zenbait ataletan aplikatu daiteke, gaitasun maila minimo bat lortu den unetik maila hori gal ez dadin neurririk egokiena erabilera baita.

2. Gipuzkoako Batzar Nagusietako Arau Forala

Arau Foralak jasotzen duenari buruzko datu batzuk azpimarratzen saiatuko naiz.

Arau honek, Euskararen Normalkuntzaren marko araugilea osatzen duten xedapenak aplikatzen ditu Batzar Nagusien jarduera esparruan. Honela, Administrazio publiko bakoitzaren autonomiak eskaintzen dion eskuduntzaz baliatzeaz gain Administrazio eta Aginte publiko bakoitzak legez duen ardura egikaritzen du, Administrazio publiko bakoitzak baitu bere jarduera eremuan aipaturiko arauen aplikazio eta garapena.

Arau honek, eta bi hizkuntzen berdintasun soziala lortzeko xedez, euskararen lehentasunezko tratamendua hartzen du zutabe bezala (2.Art.).

Arau honetan Batzarkide, enplegatu eta hiritar ororen hizkuntz eskubideak aitortzen dira (3.Art.) gero eskubide horiek bermatzeko neurriak jartzen direlarik.

Neurri horien artean, euskara zerbitzu hizkuntza izateaz gain lan hizkuntza ere ba dela aitortzen da (6.Art.) eta ondorioz enplegatuek beraien Hizkuntz Eskakizuna egiaztatua duten unetik beraien lanak euskaraz burutuko dituztela xedatzen da.

Ikus daiteken moduan, Batzar Nagusiek euskara lan hizkuntza izan dadin hartu dute helburutzat eta helburu hori lortzeko administrazio atal guziak elebidunak deklaratu dituzte (4.Art) eta bertako enplegatuek behar bezalako hizkuntz gaitasuna izan beharko dutela xedatzen du.

Arau honek, beraz, baliabide guziak martxan jartzen ditu euskara lan hizkuntza bihurtu dadin. Gakoa, ordea, Batzar Nagusietako zerbitzuen erabiltzaileengan dago; hiritarrei eta Batzarkideei aitortutako hizkuntz eskubideak errespetatuak izan daitezen, gaztelera erabiliko dela adierazten du Arau Foralak "interesatu pribatuen eta Batzarkideen eskariz burutzen diren idazlanetan" (6.Art.).

Azken xedapen honek erabiltzaileen esku uzten du Batzar Nagusietako enplegatuen euskararen erabilera, hala eskatzen dutenetan erabiliko delarik euskara lan hizkuntza moduan.

Hala, eta Batzar Nagusiek baliabideak jarri dituztelarik, Batzarkideek eta hiritarrek erabakiko dute azken neurrian Batzarretako barne lana zein hizkuntzetan burutuko den.

Arau honek adierazten digu Administrazioak neurriak egokiak jarriz ondoren hiritarren eskariak bultzatuko duela euskara administrazioko erabileran sar dadin.

Batzar Nagusietan harturiko Arau Forala egoki izate hutsarekin, funtzionarien zerbitzua eskatzen duten Batzarkide zein interesa tu pribatuek ez badituzte zerbitzu horiek euskaraz eskatzen funtzionariek ez dituzte euskaraz burutuko.

3. Donostiako Udal Administrazioan Euskararen Normalkuntza bideratzeko proposamena

1986ko 250/86 Dekretuak Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Herri Administrazioetan euskararen erabilera eta normalizazioa arautu zuen, bere laugarren atalburuko lehen sailean Udal Administrazioen bete beharrak arautzen zituelarik.

Sail honek Administrazio bakoitza kokatua dagoen guneko egoera soziolinguistikoak kontutan izanik, helburu mailakatuak zerrendatzen zituen, Administrazio publikoen autonomi printzipioari errespetua agertuz iritsi beharreko helburuetara iristeko neurriak hartzeko.

Dekretu honen arabera Donostiako Udalari 12.4 ataleko helburuak dagozkio, alegia "Gizarte izaerako eta izaera Orokorrekoak diren zerbitzu eta Administrazio atalak osorik elebietan lanean jarriko dira. Horretarako, eta hartu beharreko beste hainbat neurriren artean, langileak bere lana euskaraz bete ahal izateko gaituko dira."

Xedapen honetan oinarrituz Donostiako Udalak 1991.eko maiatzaren 9an "Donostiako Udalean eta Udalerrian Euskararen Erabilpena Normalizatzeko Ordenantza" onartu zuen.

Ordenantzaren 2. artikuluak dionaren arabera "Aplikazio orokorra izan dezaten eman diren eta indarrean dauden lege nahiz arauen eta arauteria honen arabera erabiliko dute euskara Donostiako Udalak eta bere erakunde autonomoek, nahiz bere barne funtzionamenduan nahiz herritarrekiko harremanetan

nola organismo eta erakunde guztiekiko harremanetan, azken helburua Euskararen erabileraren normalizazioa delarik".

Ordenantza honen bigarren kapituluak, Euskararen erabilera Udalaren barne funtzionamenduan, zera dio bere 6. Artikuluan "...Hiritarren zerbitzurako hizkuntza ezik laneko hizkuntza ere izango da euskara Donostiako Udalean, Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera".

16. Artikuluak, arestian aipaturikoa garatuz zera dio "Udaleko organo guziek dute—informatiboek eta exekutiboek—bere ohizko lan-hizkuntzatzat euskara aukeratzeko eskubidea".

Ordenantza honek Arau-markoa ezarri bazuen ere, lan hizkuntza bezalako atalek duten ezarpen geldoa edo hutsa ikusirik, Donostiako Udal Patronatoak ordurarte eginikoaren balorazioa egin ondoren, egindakoa sendotu, areagotu eta gal ez dadin derrigorrezkoa ikusi zuen euskararen normalkuntzari bultzada bat emango zion proposamen bat egitea, lehenago aipatu dugun ildo berean, Udal Ordenantza paper hutsean gera ez zedin.

Proposamen honen edukiak honetan datza sintetikoki: Administrazio atal ezberdinetan langileen hizkuntz prestakuntza eta langileen hizkuntz trebakuntza ikusirik, eta Administrazio atalak burutzen dituen lan jardun guztien zerrendak, eskuartzen duten pertsonen hizkuntz gaitasunarekin alderatuz, zein atal, zein lan jardun eta zein langilek bere lana euskaraz egin dezaken zehaztu eta horrela proposamen bat luzatzea.

Argi ikus daiteken moduan, proposamen honek ez du AEBE planean ikusiriko metodoligiarekiko desberdintasun handiegirik planteatzen.

Desberdintasun nabariena, Administrazio honen tamaina ikusirik, egitasmoaren ezarpen esparruan datza.

Bergaran eta Antzuolan plangintza Administrazio osora begira bazeuden, Donostiako Udal Administrazioan plangintzak gune egokienak identifikatu behar ditu eta gero plangintza gune horietan aplikatu.

Udal Administrazioaren azterketa xehekatu bat egin ondoren Euskararen erabilera plana martxan jartzeko gune egokiak identifikatzen dira (bideragarritasuna) gune horietan plangintza bat aplikatuz.

Donostiako Udalaren kasuan, erabilera planaren aplikazio esparrua finkatzeko honako irizpide hauek erabili dira:

— Gizarte izaerako eta izaera Orokorreko atalak;

— Trebakuntzaldia bideratuta dutenak;

— 45 urtetik beheragoko batez besteko langile gehien dituztenak;

— Langile euskaldunen dentsitatea edo eta teknikarien dentsitatea %50etik goragokoa denean;

— langile, teknikari zein politikarien euskararekiko jarrera positiboagoa dutenak.

Irizpide hauek erabiliz, Donostiako Udal Administrazioan Euskararen Normalkuntza bideratzeko proposamenaren ezarpen esparrua 7 administrazio ataletan mugatua geratu da:

1. Gizarte, Ongizate eta Enplegu Sustapenerako Zuzendaritza.
2. Osasun Zerbitzua.
3. Aurrekontua eta kontabilitatea.
4. Barne Eraentza.
5. Gazteri Zerbitzua.
6. Kultur Udal Patronatua.
7. Kiroletako Udal Patronatua.

Atal hauetan martxan jartzea proposatzen den plangintzak, laburbilduz, bi zutabe nagusi ditu:

— Donostiako Osoko Bilkurak Administrazio atal hauek elebidun izendatzea;

— Gaur egun gazteleraz ekoizten diren lan jardunak euskaraz egiten hastea, progresiboki eta errazenetik zailenera pasatuz.

Bi lerrotan laburtu dugun plangintza hau konplexutasun handiko plangintza da eta Donostiako Udal Patronatuak hilabeteetan zehar eginiko lanaren ondorio.

Plangintza honek lau urtetako helburuak aurreikusten ditu, mailakatuz eta banan bana, atalak elebidun deklaratze hutsak ez baititu langileak bapatean euskara erabiltzera bultzatuko.

Lau urteko plangintza honek berehala martxan jar daitezken lan jardun errazenetik eta motxenetik hasita, maiztasun handiagoa daukatenak, gainerako lan jardunetara zabaltzea espero du, horretarako pausoka lortu beharreko helburu mailakatuak zerrendatzen dituelarik.

Azken finean plangintzaren helburua, proposaturiko Administrazio-atalen baldintza linguistiko egokiak aprobetxatuz, hizkuntz ohiturak aldatzea litzateke, bideragarriak diren lan jardunak euskaraz ekoizten hasiz gero ohitura sortzearren.

Plangintzaren kronograma deiturikoa jarraituz, ohitura berri horrek kateko erreakzioa sortuko luke beste lan jardunen gain, pixkanaka eta sistematikoki lan jardun guzietara zabaldu arte.

Plangintzaren puntu nagusiak gainetik ikusi ondoren, gure ikuspuntutik planteatzen dituen arazoak aipatzea dagokigu orain.

Lehenik, eta atentzioa deitzen duen datu bezala zera esan nahiko genuke, inplikaturiko langile zein zuzendarien onespena jaso duen plangintza honek —esfortzu gehien egin behar dutenena alegia— ez du oraino arduradun politikoen onespea jaso (22). Azken finean, eta inongo meriturik kendu

(22) Lan hau inprimatzen ari zela, azarearen 3. astean Donostiako Gobernu batzordeak eginiko bileran, oniritzia eman zitzaion euskararen erabilera planari. Erabilera plan hau osoko bilkuran ez agertzearen arrazoiak ez dituzu une honetan ez deutzen baina adostasun osoz onarturiko plan baten legitimitateak mesede handia egingo liokeela uste dugu.

gabe, Euskararen Erabilpenaren Normalkuntzarako Legeak eta ondorengo xedapenek arautzen duten ofizialtasun sistema egikaritzea besterik eskatzen ez duen instrumentu bat izanik, politikarien inplikazioa eta onespena jaso beharko luke, hala eskatzen baitu Euskararen Normalkuntzarako jarraitutako bideak eta hala exijitzen baitu Euskalduntze prozesuan orain arte jarritako esfortzuak.

Honetan hiritarrok badugu zer esatekorik, azken finean onespena eman behar duten politikariei beraien erantzukizuna koherenteki bereganatzeko eskakizuna egin behar baitiegu.

Erabilera planak sor ditzaken arazoekin jarraituz, plangintza honen martxan jartzeak sor ditzaken eragozpen praktikoak kontutan hartu beharko dira, batez ere lehen plangintzaldi honetan inplikaturiko ataletan aurki daitezken oztopoak identifikatuz eta gainditzeko neurriak ezarriz.

Donostiako plangintzak Inpaktu plan batetan aurreikusi ditu sor daitezken oztopoak, batez ere euskararen erabilerak lan katean sor ditzaken trabak identifikatuz eta horrela lan kate horrek etenik izan ez dezan bermatuz.

Harturiko neurrien artean itzultzailearen figurari erreferentzia egin nahiko genioke.

Donostiako planak, itzultzailearen figura sartzen du lan katean sor daitezken tentsio guneetan (alegia euskara nahikorik ez dakiten langile edo zuzendariak agertzen diren guneetan) ahalik eta katea eten ez dadin.

Itzultzaileei buruzko balorazioetan sartu gabe, itzultzaileen laguntza erabiltzeko ohitura sortzeko arriskua dagoela iruditzen zaigu, hori aldentzeko itzultzailearen lana tenporala eta mugatua izan beharko lukeela egokia iruditzen zaigularik.

Behar dituen langilearentzat itzulpenak epe batetan egin daitezke (hizkuntza gaitasun nahiko lortu artean edo) denbora bat pasata langileak gai izan beharko duelarik lana bere kasa burutzeko.

Gaitasun hori lortzen laguntzeko, itzultzailek langilea inplikatu beharko luke itzulpenean, berarekin elkarlanean itzuliz eta pixkanaka bere kasa egin dezan baimenduz.

Amaitzeko, Donostiako plangintzak suposatzen duen aurrera pausoa azpimarratu nahi genuke, plan honek adierazten baitu Administrazioaren tamaina ez dela gainditu ezineko oztopoa erabilera planak martxan jartzeko.

Administrazio txikiak erabilera planak bideratzeko gune egokiak badirudite ere, Donostiako Udalak erakusten digu Administrazioa handia denean unitate edo ataletan zatituz eta atal egokietan lan eginez erabilera martxan jarri daitekeela.

IV. Konklusioak

Konklusioetara iritsi garelarik praktikak erakutsi dizkigun zenbait puntu aipatu nahiko genituzke:

Batetik, Udal txikien ekimenek bidean aurkituriko arazoak leudeke, bai arazo juridikoak bai materialak.

Arazo materialak Udal hauen lan isolatuagatik datozela iruditzen zaigu, azken finean Udal txikiek ez baitute baliabide ez gaitasunik erabilerak suposatzen duen lan guztiari aurre egiteko eta arazo juridikoak Udal hauek bere lanak aurrera ateratzeko falta zaien sostengu juridiko argi batetan datza, Normalkuntza Legearen 8.3 artikuluak utzitako hutsunea beteko duena.

Iruditzen zaigu arazo hauek bideratzeko egokia izango litzatekeela Euskal Udalen Lege bat onartzea, honek hizkuntzari buruzko xedapen minimo batzuk edukirik, oinarri juridiko garbia erakutsiko baitieke martxan jarri nahi duten Udalei eta bide batez martxan jarri nahi ez duten Udalei ere aplikagarri izango litzaizkioke xedapen minimo horiek.

Hortik gora, Udalerri bakoitzak inork baino hobeto ezagutzen dituenez bere baliabideak eta bere egoerak inork ez luke berak baina hobeto aurrera eramango erabilerari buruzko Udal politika bat, baina aholkularitza, baliabide materialak eta nolabaiteko kontrolaren erantzukizuna ere norbaitek hartu beharko luke.

Bestetik, eta administrazio guztientzat baliagarri izango litzatekeen puntu bat azalduz, iruditzen zaigu datorren plangintzaldiak erabilerari bultzada handi bat eman beharko liokeela, Euskalduntze planetan erabilera kontutan hartuz, Hizkuntz Eskakizunak bete beharreko lanarekin benetan adostuz, eta oraindik ezer egin ez duten administrazioetan gune egokiak sor daitezen neurriak jarriz (euskaldunen lan kateak sortu adibidez).

Guzti hau ongi egiteko, eta Administrazio bakoitzak behar duen plangintza partikularizatua nolabaiteko homogeneitate eta osotasun batekin uztartzeko, agian erabileraren oinarriak eta minimoak jarriko lituzken Dekretu bat aurreikusi daiteke, helburu mailakatuak eta desberdinak ezartzen dituena baina Hizkuntz Eskakizun batek atzean daraman erabiltzeko erantzukizuna eta derrigortasun karga argi azalduko dituena.